<p>Idazkariak bere gain hartuko ditu ere altxorzain lanak. Hori horrela, sarreren eta</p>	<p>El Secretario/a asumirá las funciones de tesorería. En este sentido, dará a conocer los</p>

*Amaz Ace*

*[Handwritten signature]*



<p>ordainketen berri emateaz gainera, sarreren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, baita aurreko urteko kontuen egoera ere, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkionak, honek Batzar Nagusiaren onespenera bidera ditzan.</p>	<p>ingresos y pagos efectuados, formalizará el presupuesto anual de ingresos y gastos, así como el estado de cuentas del año anterior, que deben ser presentados a la Junta Directiva para que ésta, a su vez, los someta a la aprobación de la Asamblea General.</p>
<p>ZUZENDARITZA ARTISTIKOA ETA KIDEAK</p>	<p>DIRECCIÓN ARTÍSTICA Y VOCALES</p>
<p><b>26. artikulua.-</b> Zuzendaritza artistikoak kideen funtzio guztiak, edukiko ditu.</p>	<p><b>Artículo 26.-</b> La Dirección artística tendrá, todas las funciones de las vocalías.</p>
<p>Kideek, Zuzendaritza Batzordeko kide diren aldetik, beren karguari dagozkion betebeharrak izango dituzte (elkartearen zuzendaritza eta gestio arrunta), eta batzordeak berak agintzen dizkienak.</p>	<p>Los/las Vocales tendrán las obligaciones propias de su cargo como miembros de la Junta Directiva (dirección y gestión ordinaria de la asociación), y así como las que la propia junta las encomiende.</p>
<p style="text-align: center;"><b><u>HIRUGARREN KAPITULUA</u></b> <b><u>BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO</u></b> <b><u>BALDINTZAK ETA PROZEDURA, ETA</u></b> <b><u>MOTAK</u></b></p>	<p style="text-align: center;"><b><u>CAPÍTULO TERCERO</u></b> <b><u>DE LOS SOCIOS/AS: REQUISITOS Y</u></b> <b><u>PROCEDIMIENTO DE ADMISIÓN Y</u></b> <b><u>CLASES</u></b></p>
<p><b>27. artikulua.-</b> Elkarteko kide izan daiteke nahi duen pertsona oro, baldin eta baldintza hauek eta hurrengo artikulukoak betetzen baditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona fisikoak:       <ul style="list-style-type: none"> <li>○ adinez nagusia edo adingabe emantzipatua izatea, beren eskubidea baliatzeko inongo lege eragozpenik ez dutenak, ez eta beren gaitasuna mugatuta ere ebazpen judicial irmo baten bidez.</li> <li>○ 16 urtetatik gorako ez emantzipatua izatea eta bere gaitasun falta bete behar duten pertsonen baimen idatzia edukitzea. Kasu honetan, ahots eta botoa izango dute batzar orokorretan, baina ezin izango dira zuzendaritza karguetan aritu.</li> </ul> </li> <li>• Pertsona juridikoak: dagokion organo eskumendunak hartutako akordio baliodunaren kopia aurkeztea, eta dokumentu horretan, elkarteko kide izateko borondatea adieraztea eta ordezkaritza bere gain hartuko duen pertsona identifikatzea.</li> </ul>	<p><b>Artículo 27.-</b> Pueden ser miembros de la Asociación aquéllas personas que así lo deseen y que, además de las previstas en el artículo siguiente para cada categoría, reúnan las condiciones siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• En el caso de las personas físicas:       <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ser mayor de edad o menor emancipado, y no estar sujetas a ninguna condición legal para el ejercicio de su derecho, ni tener limitada su capacidad en virtud de resolución judicial firme.</li> <li>○ Ser mayor de 16 años no emancipado, y contar con el consentimiento escrito de las personas que deban suplir su falta de capacidad. En este caso, tendrán derecho de voz y voto en las asambleas generales, pero no podrán asumir cargos directivos.</li> </ul> </li> <li>• Tratándose de personas jurídicas deberán aportar copia del acuerdo válidamente adoptado en su seno por el órgano competente para ello, y manifestar en él su voluntad asociativa, así como la designación de quien por ellas actúe.</li> </ul>

*Amaz Aze*

*[Handwritten signature]*



<p><b>28. artikulua.-</b> Hainbat motatako bazkideak daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sortzaileak: eraketa akta izenpetzen dutenak.</li> <li>• Arruntak: dagokion musika proba gainditu dutenak.</li> <li>• Babesleak, "ehuOrkestra Sinfonikoaren Adiskideak": aurreko kategorietan sartzen ez diren eta elkarteari lagundu nahi dioten pertsona fisikoak edo juridikoak.</li> </ul>	<p><b>Artículo 28.-</b> Las personas asociadas están clasificadas en las siguientes categorías:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Fundadoras: personas que suscriben el acta de constitución.</li> <li>• Ordinarias: Personas que han superado la prueba musical correspondiente.</li> <li>• Protectoras, "Amigos de la ehuOrkestra Sinfonikoa": todas aquellas personas físicas o jurídicas que, no estando incluidas en las categorías anteriores, quieran colaborar con los fines de la Asociación.</li> </ul>
<p><b>29. artikulua.-</b> Elkarteko kide izan nahi duten pertsonak idatzi bat bidaliko diote presidenteari, eta honek Zuzendaritza Batzordera bideratuko du eskaera. Batzordeak eskaera onartu edo atzera botako du, eta gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusiaren aurrean.</p>	<p><b>Artículo 29.-</b> Quienes deseen pertenecer a la Asociación, lo solicitarán por escrito dirigido al Presidente/a, quien, dará cuenta a la Junta Directiva, que resolverá sobre la admisión o inadmisión, pudiéndose recurrir en alzada ante la Asamblea General.</p>
<p><b>30. artikulua.-</b> Elkarteko kideen % 30 gutxienez UPV/EHUREKIN loturaren bat eduki behar dute.</p>	<p><b>Artículo 30.-</b> La Asociación tendrá que mantener como mínimo un 30% de sus miembros con algún vínculo con la UPV/EHU.</p>
<p>BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</p>	<p>DERECHOS Y DEBERES DE LOS SOCIOS/AS</p>
<p><b>31. artikulua.-</b> Bazkide sortzaileek eta arruntek eskubidea izango dute:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Elkarteei buruzko Legearen aurkakoak diren akordioak eta ekintzak inpugnatzeko, berrogei egun naturaleko epean, demandatzaileak inpugnatutako akordioaren edukia berri izan duen egunetik kontatzen hasita.</li> <li>2) Informazioa jasotzeko, elkartearen gobernu eta ordezkari organoen osakerari, kontuen egoerari eta haren jardueren nondik norakoei buruz.</li> <li>3) Noiznahi, elkarteko beste kideen nortasuna ezagutzeko, sarreraren eta gastuen kontuen egoera, eta elkartearen jardueren garapena, datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritako moduan.</li> <li>4) Batzar Nagusiaren deialdiak jasotzeko, bilkura horietara joateko, eta ahots eta boto eskubidea erabiltzeko (beste kide</li> </ol>	<p><b>Artículo 31.-</b> Toda persona asociada fundadora u ordinaria tiene derecho a:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Impugnar los acuerdos y actuaciones contrarios a la Ley de Asociaciones o a los Estatutos, dentro del plazo de cuarenta días naturales, contados a partir de aquél en que el/la demandante hubiera conocido, o tenido oportunidad de conocer, el contenido del acuerdo impugnado.</li> <li>2) A ser informado acerca de la composición de los órganos de gobierno y representación de la asociación, de su estado de cuentas y del desarrollo de su actividad.</li> <li>3) Conocer, en cualquier momento, la identidad de los/las demás miembros de la Asociación, el estado de cuentas de ingresos y gastos, y el desarrollo de la actividad de ésta, en los términos previstos</li> </ol>

*Amara Ace*

*[Handwritten signature]*



<p>batzuen esku utzi ahal izango dute beren ordezkaritza).</p> <p>5) Estatutu hauen arabera, elkartearen zuzendaritza organoetan parte hartzeko, hautesle eta hautagarri modura.</p> <p>6) Indarrean dagoen legediak aurreikusten duen bazkideen fitxategian egoteko, eta elkartearen ikurra erabiltzeko (halakorik balego).</p> <p>7) Estatutuen eta Barne Araubidearen Erregelamenduaren ale bat edukitzeko (halakorik balego), eta eskaerak eta keak aurkezteko zuzendaritza organoen aurrean.</p> <p>8) Elkartearen ekintza kolektiboetan aritzeko, eta bazkide guztientzat diren elementuak erabiltzeko (elkartearen egoitza, bibliotekak, etab.).</p> <p>9) Idatziz entzuna izateko, diziiplina neurriak hartu aurretik, eta neurri horiek eragiten dituzten arrazoiak jakiteko (bazkideei dagozkien betebeharrak betetzen ez direnean hartuko dira soilik diziiplina neurriak).</p> <p>10) Noiznahi baja hartzeko, betetzeke dauden konpromisoak bete beharko badira ere.</p>	<p>en la normativa de protección de datos de carácter personal.</p> <p>4) Ser convocado/a a las asambleas generales, asistir a ellas y ejercitar el derecho de voz y voto en las Asambleas Generales, pudiendo conferir, a tal efecto, su representación a otros/as miembros.</p> <p>5) Participar, de acuerdo con los presentes Estatutos, en los órganos de dirección de la Asociación, siendo elector/a y elegible para los mismos.</p> <p>6) Figurar en el fichero de Socios/as previsto en la legislación vigente, y hacer uso del emblema de la Asociación, si lo hubiere.</p> <p>7) Poseer un ejemplar de los Estatutos y del Reglamento de Régimen Interior si lo hubiere, y presentar solicitudes y quejas ante los órganos directivos.</p> <p>8) Participar en los actos sociales colectivos, y disfrutar de los elementos destinados a uso común de los/as socios/as (local social, bibliotecas, etc.).</p> <p>9) Ser oído/a por escrito, con carácter previo a la adopción de medidas disciplinarias, e informado/a de las causas que motiven aquéllas, que sólo podrán fundarse en el incumplimiento de sus deberes como socios/as.</p> <p>10) Darse de baja en cualquier momento, sin perjuicio de los compromisos adquiridos pendientes de cumplimiento.</p>
<p><b>32. artikulua.-</b> Bazkide sortzaileek eta arruntek betebeharrak hauek izango dituzte:</p> <p>1. Elkartearen helburuak onartzea eta horiek betetzen laguntzea.</p> <p>2. Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta beste ekarpenak ordaintzea.</p> <p>3. Estatutuetan ezarritako beste betebeharrak betetzea.</p> <p>4. Elkartearen gobernu organoek hartzen dituzten erabaki baliodunak onartzea eta betetzea.</p> <p>5. Entsegu eta jardueretara joatea eta/edo horietan parte hartzea, horretarako onartzen diren akordioen arabera.</p>	<p><b>Artículo 32.-</b> Toda persona asociada fundadora u ordinaria tiene el deber de:</p> <p>1. Compartir las finalidades de la asociación y colaborar en su consecución.</p> <p>2. Pagar las cuotas, derramas y otras aportaciones que, con arreglo a los estatutos, puedan corresponder a cada socio.</p> <p>3. Cumplir el resto de las obligaciones que resulten de los estatutos.</p> <p>4. Acatar y cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de la asociación.</p> <p>5. Asistir y participar en ensayos y/o actividades según los Acuerdos que se aprueben al efecto.</p>
<p><b>33. artikulua.-</b> "ehuOrkestra Sinfonikoaren Adiskideak" diren babesleek</p>	<p><b>Artículo 33.-</b> Las personas protectoras "Amigos de la ehuOrkestra Sinfonikoa"</p>

*Amaz Ace*

*[Signature]*



<p>eskubidea izango dute eskubidea izango dute ehuOrkestra Sinfonikoaren jardueri buruzko informazioa jasotzeko. Urteko kuota ordainduko dute, Zuzendaritza Batzordeak ezarriko duena, eta urtean behin berentzat bereziki antolatutako kontzertu batera joateko eskubidea izango dute.</p>	<p>tendrán derecho a estar informados de las actividades de la ehuOrkestra Sinfonikoa. Deberá pagar la cuota anual que establezca la Junta Directiva y tendrán derecho a acudir a un concierto anual organizado expresamente para ellos.</p>
<p>BAZKIDE IZATEARI UZTEA</p>	<p>PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE SOCIO/A</p>
<p><b>34. artikulua.-</b> Bazkide izateari uzteko arrazoiak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Heriotza edo, pertsona juridikoen kasuan, disoluzioa.</li> <li>• Borondatez bazkide izateari uztea.</li> <li>• Zigorra jasotzean, honako arrazoi hauetako bategatik: Estatutu hauetan ezarritako betebeharrak edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak ez betetzea, ez-betetzea larria denean eta behin eta berriro eta nahita egiten denean.</li> </ul>	<p><b>Artículo 34.-</b> La condición de socio/a se perderá en los casos siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Por fallecimiento, o, disolución de las personas jurídicas (si las hubiera).</li> <li>• Por separación voluntaria.</li> <li>• Por separación por sanción, cuando se den algunas de las siguientes circunstancias: incumplimiento grave, reiterado y deliberado, de los deberes emanados de los presentes Estatutos, o, de los acuerdos válidamente adoptados por la Asamblea General o Junta Directiva.</li> </ul>
<p>ZEHAPEN ARAUBIDEA</p>	<p>RÉGIMEN SANCIONADOR</p>
<p><b>35. artikulua.-</b> Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu, Estatutuak edo Batzar Nagusiaren edota Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriro urratzeagatik.</p>	<p><b>Artículo 35.-</b> Las personas asociadas podrán ser sancionadas por la Junta Directiva por infringir reiteradamente los Estatutos, o, los acuerdos de la Asamblea General o de la Junta Directiva.</p>
<p>Zigorrari dagokionez, eskubideak bertan behera uztea izango da arinena, 15 egunetik hilabetera; gogorrena, elkartetik kanporatua izatea, hurrengo artikuluetan azaltzen den moduan.</p>	<p>Las sanciones pueden comprender desde la suspensión de los derechos, de 15 días a un mes, hasta la separación definitiva, en los términos previstos en los siguientes artículos.</p>
<p>Hori horrela, presidenteak ikerketa bat hastea erabaki ahal izango du, zigortuak izan daitezkeen jokabideak argitzeko. Idazkaria ardurako da ikerketa lana egiteaz, organo instruktorea den aldetik, eta egoki irizten dion neurriak hartzea proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari.</p>	<p>A tales efectos, la Presidencia podrá acordar la apertura de una investigación para que se aclaren aquellas conductas que puedan ser sancionables. Las actuaciones se llevarán a cabo por la Secretaría, como órgano instructor, que propondrá a la Junta Directiva la adopción de las medidas oportunas.</p>
<p>Zuzendaritza Batzordea arduratuko da zigorrak ezartzeaz, eta idazkariak ez du</p>	<p>La imposición de sanciones será facultad de la Junta Directiva, sin la participación del</p>

*Amara Ace*

*[Signature]*





<p>horretan zeresanik izango, organo instruktorea delako. Zigorra ezarri aurretik, interesdunari entzungo zaio. Zigorra ezartzeko erabakia arrazoituta egongo da beti, eta errekurritu ahal izango da, Batzar Nagusiaren aurrean.</p>	<p>Secretario/a (por ser órgano instructor), y deberá ir precedida de la audiencia de la persona interesada. Contra dicho acuerdo, que será siempre motivado, podrá recurrirse ante la Asamblea General.</p>
<p><b>36. artikulua.</b>- Ustez bazkide bat elkartetik kanporatua izateko arrazoi bat dagoenean, Estatutuek ezarritako betebeharrak edo Batzar Nagusiaren edota Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz, nahita eta larriki ez betetzeagatik, alde aurreko eginbide batzuk abiaraz ditzala aginduko dio presidenteak idazkariari, informazio egokia eskuratzeko, eta bi aukera izango ditu informazio hori eskutan: eginbideak artxibatzea edo elkartetik kanporatua izateko zigor espedientea abiaraztea.</p>	<p><b>Artículo 36.-</b> El acuerdo de separación será notificado a la persona interesada, comunicándole que, contra el mismo, podrá presentar recurso ante la primera Asamblea General Extraordinaria que se celebre, que, de no convocarse en tres meses, deberá serlo a tales efectos exclusivamente. Mientras tanto, la Junta Directiva podrá acordar que la persona inculpada sea suspendida en sus derechos como socio/a y, si formara parte de la Junta Directiva, deberá decretar la suspensión en el ejercicio del cargo.</p>
<p>Kanporatze erabakia arrazoituta egongo da beti, eta interesdunari jakinaraziko zaio. Honek epaitegietara jo ahal izango du, erabakia Legearen edo Estatutuen kontrakoa izan dela uste badu.</p>	<p>El acuerdo de separación, que será siempre motivado, deberá ser comunicado a la persona interesada, pudiendo ésta recurrir a los Tribunales en ejercicio del derecho que le corresponde, cuando estimare que aquél es contrario a la Ley o a los Estatutos.</p>
<p><b>37. artikulua.</b>- Bazkide bati elkartetik kanpo gelditu dela jakinarazten zaioenean (elkartea bere borondatez utzi duenean edo zigor baten ondorioz izan denean), elkartearekin betetzeke dituen konpromisoak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.</p>	<p><b>Artículo 37.-</b> Al comunicar a un/una socio/a su separación de la Asociación, ya sea con carácter voluntario o como consecuencia de sanción, se le requerirá para que cumpla con las obligaciones que tenga pendientes para con aquélla, en su caso.</p>
<p style="text-align: center;"><b><u>LAUGARREN KAPITULUA</u></b> <b><u>ONDAREA SOZIALA ETA</u></b> <b><u>AURREKONTU ERREGIMENA</u></b></p>	<p style="text-align: center;"><b><u>CAPÍTULO CUARTO</u></b> <b><u>PATRIMONIO SOCIAL Y RÉGIMEN</u></b> <b><u>PRESUPUESTARIO</u></b></p>
<p><b>38. artikulua.</b>- Elkartearen ONDARE SOZIALA 13.662 eurokoa da.</p>	<p><b>Artículo 38.-</b> El PATRIMONIO SOCIAL de la Asociación asciende a 13.662 euros.</p>
<p><b>39. artikulua.</b>- Elkartek gizarte jarduerak egiteko izango dituen baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:</p>	<p><b>Artículo 39.-</b> Los recursos económicos previstos por la Asociación para el desarrollo de las actividades sociales, serán los siguientes:</p>

*Amor Ase*

*[Signature]*



<p>a) Ondare ekarpenak.</p> <p>b) Adostutako aldizkako kuotak.</p> <p>c) Dagozkion ondasun eta eskubideen bidez eskuratutakoak, baita legez jaso ditzakeen diru laguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.</p> <p>d) Zuzendaritza Batzordeak, estatutu helburuen barruan betiere, adostutako legezko jardueren bidez elkarteak lortutako sarrerak.</p>	<p>a) Las aportaciones patrimoniales.</p> <p>b) Las cuotas periódicas que acuerden.</p> <p>c) Los productos de los bienes y derechos que le correspondan, así como las subvenciones, legados y donaciones que pueda recibir en forma legal.</p> <p>d) Los ingresos que obtenga la Asociación mediante las actividades lícitas que acuerde realizar la Junta Directiva, siempre dentro de los fines estatutarios.</p>
<p>ELKARTE ETA EKONOMIA EKITALDIA urtekoa izango da, eta abenduaren 31n itxiko da urtero.</p>	<p>EI EJERCICIO ASOCIATIVO Y ECONÓMICO será anual y su cierre tendrá lugar el día 31 de diciembre de cada año.</p>
<p>Jarduera ekonomikoen bidez –emandako zerbitzuak barne–, elkarteak lortutako irabaziak soil-soilik haren helburuak betetzera bideratuko dira, eta ezingo dira banatu, inola ere, ez elkartekideen artean, ez haien ezkontideen edo antzeko harreman afektiboak direla eta haiekin bizi diren pertsonen artean, ez haien ahaideen artean, eta ezingo zaizkie doan utzi irabazi asmoz jardun diren pertsona fisikoei edo juridikoei</p>	<p>Los beneficios obtenidos por la asociación, derivados del ejercicio de actividades económicas, incluidas las prestaciones de servicios, deberán destinarse, exclusivamente, al cumplimiento de sus fines, sin que quepa en ningún caso su reparto entre los asociados ni entre sus cónyuges o personas que convivan con aquéllos con análoga relación de afectividad, ni entre sus parientes, ni su cesión gratuita a personas físicas o jurídicas con interés lucrativo.</p>
<p><b><u>BOSGARREN KAPITULUA</u></b> <b><u>ESTATUTUAK ALDATZEA</u></b></p>	<p><b><u>CAPÍTULO QUINTO</u></b> <b><u>DE LA MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS</u></b></p>
<p><b>40. artikulua.-</b> Estatuak aldatzeko erabakia berariaz horretarako deituko den bazkideen ezohiko Batzar Nagusian hartu beharko da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde txostengile bat izendatuko du, aldaketa proiektua idatz dezan Zuzendaritza Batzordeak emandako irizpideen arabera. Zuzendaritza Batzordeak finkatuko du ere proiektua amaitzeko epea.</p>	<p><b>Artículo 40.-</b> La modificación de los Estatutos habrá de acordarse en Asamblea General extraordinaria de socios convocada específicamente con tal objeto. La Junta Directiva designará una Ponencia formada por tres personas socias, a fin de que redacte el proyecto de modificación, siguiendo las directrices impartidas por aquélla, la cual fijará el plazo en el que tal proyecto deberá estar terminado.</p>
<p><b>41. artikulua.-</b> Aldaketa proiektua aipatutako epean idatzi ondoren, presidentek Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko du gaia, eta bilera horretan</p>	<p><b>Artículo 41.-</b> Una vez redactado el proyecto de modificación en el plazo señalado, el/la Presidente/a lo incluirá en el Orden del Día de la primera Junta Directiva que se celebre, la</p>

*Amara Arce*

*[Handwritten signature]*





<p>aldaketa onartu, edo, hala badagokio, batzorde txostengileari igorriko zaio, berriro azter dezan.</p>	<p>cual lo aprobará o, en su caso, lo devolverá a la Ponencia para nuevo estudio.</p>
<p>Aldaketa onartzen bada, Zuzendaritza Batzordeak lehenengo Ezohiko Batzar Nagusiaren aztergaien zerrendan sartuko du gaia.</p>	<p>En el supuesto de que fuera aprobado, la Junta Directiva acordará incluirlo en el Orden del Día de la próxima Asamblea General Extraordinaria que se celebre.</p>
<p><b>42. artikulua.-</b> Batzarrerako deialdiarekin batera, Estatutuak aldatzeko testua igorriko da, bazkideek idazkariari egokitzat jotzen dituzten zuzenketak bidal diezazkioten. Batzar Nagusiari zuzenketen berri emango zaio, baldin eta idazkariak bilera egin baino zortzi egun lehenago jaso baditu.</p>	<p><b>Artículo 42.-</b> A la convocatoria de la Asamblea se acompañará el texto de la modificación de Estatutos, a fin de que los socios/as puedan dirigir a la Secretaría las enmiendas que estimen oportunas, de las cuáles se dará cuenta a la Asamblea General, siempre y cuando estén en poder de la Secretaría con ocho días de antelación a la celebración de la sesión.</p>
<p>Zuzenketak banaka edo taldeka egin ahal izango dira; idatziz aurkeztuko dira; eta, beste testu alternatibo bat eduki beharko dute. Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Nagusiak estatutua aldatzeko akordioa hartuko du, eta akordio horrek ondorioak izango ditu hirugarrenen aurrean soilik Elkartearen Erregistro Orokorrean sartzen denean.</p>	<p>Las enmiendas podrán ser formuladas individualmente o colectivamente, se harán por escrito y contendrán la alternativa de otro texto. Tras la votación de las enmiendas, la Asamblea General adoptará el Acuerdo de modificación estatutaria, el cual sólo producirá efectos ante terceros desde que se haya procedido a su inscripción en el Registro General de Asociaciones.</p>
<p style="text-align: center;"><b><u>SEIGARREN KAPITULUA</u></b> <b><u>ELKARTEA DESEGITEA ETA</u></b> <b><u>ELKARTEAREN ONDAREA</u></b> <b><u>BIDERATZEA</u></b></p>	<p style="text-align: center;"><b><u>CAPÍTULO SEXTO</u></b> <b><u>DE LA DISOLUCIÓN DE LA</u></b> <b><u>ASOCIACIONES Y APLICACIÓN DEL</u></b> <b><u>PATRIMONIO SOCIAL</u></b></p>
<p><b>43. artikulua.-</b> Elkartea desegingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bazkideen borondatez, horretarako deituko den ezohiko Batzar Nagusian hala adierazita.</li> <li>• Estatutuetan finkatutako epea edo baldintzak betetzen direnean.</li> <li>• Beste elkarte batzuekin bat egitean.</li> <li>• Legez ezarritako bazkideen gutxieneko kopurua ez dagoenean.</li> <li>• Desegitea erabakitzen duen epai judicial irmo batez.</li> <li>• Elkartearen helburuak bete ezin direnean.</li> </ul>	<p><b>Artículo 43.-</b> La Asociación se disolverá:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Por voluntad de las/las socios/as, expresada en Asamblea General extraordinaria convocada al efecto.</li> <li>• El cumplimiento del plazo o condición fijados en los estatutos</li> <li>• La absorción o fusión con otras asociaciones.</li> <li>• La falta del número mínimo de personas asociadas legalmente establecido.</li> <li>• Por sentencia judicial firme que se acuerda la disolución.</li> </ul>

*Amán Ace*

*[Handwritten signature]*



	<ul style="list-style-type: none"> <li>• La imposibilidad de cumplimiento de los fines sociales.</li> </ul>
<p><b>44. artikulua.-</b> Elkartea desegiten bada, haren desegitea erabakitzeko egingo den ezohiko Batzar Nagusian Likidazio Batzorde bat izendatuko da, eta haren kargupean geratuko dira elkartearen funtsak.</p> <p>Elkartek bazkide eta hirugarren pertsonekin dituen betebeharrak bete ondoren, soberan geratutako elkartearen ondarea, halakorik balego, irabazi asmorik gabeko erakunde bati emango zaio, edo irabazi asmorik gabeko xedeetara bideratuko da.</p>	<p><b>Artículo 44-</b> En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General extraordinaria que acuerde la disolución, nombrará una Comisión Liquidadora, la cual se hará cargo de los fondos que existan.</p> <p>Una vez satisfechas las obligaciones sociales frente a los/las socios/as y frente a terceras personas, el patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será entregado a una entidad sin ánimo de lucro o para fines sin ánimo de lucro.</p>
<p><b><u>AZKEN XEDAPENA</u></b></p> <p>Batzar Nagusiak Barne Erregimenerako Araudi bat onartu ahal izango du, estatutu hauek garatzeko, baina araudi horretan ezingo dira aldatu, inola ere, estatutuetan jasotako aginduak.</p>	<p><b><u>DISPOSICIÓN FINAL</u></b></p> <p>La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.</p>




2019-10-10